



Bidasoa-Txingudi
Mugaz-gaindiko
Partzuergoa

IRUN ⇄ HONDARRIBIA ⇄ HENDAYE

www.irunhondarribiahendaye.com



HISTORIA DUTEN ERAIKIN AIPAGARRIAK

IRUN



Irun hiria 1766ko Errege Zedularen bidez sortu zen. Kokapen estrategikoa zuen, hiru erresumaren arteko mugan baitzegoen (Gaztela, Nafarroa eta Frantzia), eta hargatik, eraso ugari jasan zituen. Hala ere, zenbait eraikin historiko kontserbatzen dira, denboran zehar zaharberrituz joan direnak.

UDALETXEA

1756. urtetik aurrera eraiki zen, eta 1763an inauguratu zen Karlos III.aren Erregealdian, hiriko lehenengo Alkatea izan zen Aranzateko jaun Domingo de Olazabal y Ramerik eskatuta.

ARBELAITZ JAUREGIA

Eliza kalearen eta Nafarroa hiribidearen arteko bidegurutzean dago eraikin hau. XVII. mendean eraiki zuten eta estilo barrokokoa da. 1936an hirigunean sutea gertatu ondoren, berreraiki egin zuten.

URDANIBIA JAUREGIA

1612an eraikitako eraikin errenazentista hau hiriaren kanpoaldean dago, Jaizubia errekatik gertu. Monumentu-multzo deklaratu zuten bere errota eta burdinolarekin batera.

SANCHO DE URDANIBIA JAUREGIA (OSPITALE ZAHARRA)

Urdanibia plazan dago, herriko kultura- eta gizarte-zerbitzuen ondoan. 1644an eraiki zuten, eta, gaur egun, Menchu Gal museoa eta Udal Euskaltegia daude bertan.

MARTINDOZENA ETXEA

XVIII. mendean eraiki zuten, eta berritu egin zen, bertan udal-aterpetxea kokatzeko, Elizatxo hiribidean.

OIASO MUSEOA

2006an inauguratu zuten, Eskoleta karrikan. Antzinako erromatar hiribilduaren hondakin arkeologikoak gordetzen dira bertan. 2022an handitzea proiektatu da, han aurkitutako termak zaharberrituta.

AMA XANTALEN

Ermita karrikan dago, eta XIV. mendeko estilo isabeldarrekoa da. Nekropoli erromatar bat bertan dago.

IRUGURUTZETAKO LABEAK

Meaka auzoan daude, eta XX. mendearen hasierako meatze-galerien eta kaltzinazio-labeen multzoa da. Gidari batekin bisita daitezke.

GUARDIA KIDEGOA

1850ean eraiki zuten, Behobiako mugako igarobidea kontrolatzeko, eta 2017an, zaharberritu egin zuten.

SANTIAGOKO ADUANA ZAHARRA

Etorbidearen zubiaren ondoan instalatu zuten 1841ean, Santiagoko mugako igarobidea kontrolatzeko, eta 2013an, zaharberritu egin zuten, Bidasoko Interpretazio Zentroa izateko.

HONDARRIBIA



Hiribildua 1203. urtean sortu zen, eta kokapen estrategikoagatik hainbat setio izan zituen historian zehar behin eta berri gertatutako borrokaldietan. Erdi Aroko hirigunean aztarna ugari daude, harresiz inguratuta dago, eta Euskadin ondoen kontserbatuta dagoen barrutia da.

UDALETXEA

Kale Nagusian dago, eta estilo barrokoko eraikina da, 1731 eta 1740 bitartean egina. Bertan daude udala eta herritarrentzako arreta-zerbitzuak.

CARLOS V.aren GAZTELUA (PARADOREA)

Ikusi zen Arma plazan bazela gaztelu bat dagoeneko 1200. urteaz geroztik. Errege Katolikoek berritu, eta Karlos V.aren erregealdian handitu egin zuten.

ZULOAGA JAUREGIA

Dorre-Altuko kondearen leinu-etxe hau, nagusiki XVIII. mendean eraiki zuten Kale Nagusian, eta gaur egun, udalarena da, eta Artxibo Historikoa eta Udal Liburutegia daude bertan.

EGILUZ JAUREGIA

Juan de la Borda kalean dago, eta Juana la Locaren Etxea ere esaten zaio, 1502an bertan hartu baitzuen ostatu, Toledora oinordeko printze izendatuak izatera zihoazenean.

MUGARRETENEA ETXEA

Estilo errenazentistako etxe hau XVI. mendearen erdialdera eraiki zuten San Nikolas kalean.

CASADEVANTE JAUREGIA

Kale Nagusian dago, eta estilo barroko eraikina da. Hau ere XVI. mendean eraiki zuten.

RAMERI JAUREGIA

Pampinot kalean dago, eta XVI. mendean eraiki zuten. Gaur egun, Arma Plaza Fundazioa eta beste kultura-erakunde batzuk daude bertan.

ETXEBESTENEA JAUREGI ETXEA

Apezpiku plazan dago, eta 10 mendeko historia du; hala erakusten dute borroken markek eta jasan izan dituen setioek. Han jaio zen Cristobal Rojas y Sandoval apezpikua 1502an.


SAN TELMO GAZTELUA

Babes-portuaren gainean dago, eta Piraten Gaztelua ere esaten zaio. 1598an eraiki zuten, estuarioko sarrera zaintzeko eta ontziak pirata eta kortsarioetatik babesteko.

GUADALUPEKO GOTORLEKUA

Euskal Herriko defentsako eraikin ederrenetako bat da. Jaizkibel mendian dago, Guadalupeko santutegiaren ondoan, eta 1887-1900 bitartean egin zuten, azkeneko Gerra Karlistaren ondoren.

HENDAYE



1654an, Hendaiako udalerria Urruñatik banandu zen Luis XIV.a erregearen baimenarekin. Hiriaren iragana baleari lotua dago, armariak adierazten duen bezala, eta haren historia beti egon da itsasoari eta muga-kokapenari lotua, eta halaxe erakusten dute zenbait eraikuntzak.

ABBADIAKO GAZTELUA

Hendaiaren kanpoaldean dago, La Cornicheko errepidean. Eugène Viollet le Duc-ek eraiki zuen 1860 eta 1870 artean, Antoine d'Abbadieren aginduz. Gaur egun Zientzien Akademiarena da, eta Hendaye Tourisme et Commerce entitateak kudeatzen du.

ABBADIAKO JABARIKO BASERRIAK

Asporotstipi, Larretxea, Nekatoenea... aspaldi bateko zaharrak dira, eta La Corniche errepidean dagoen jabariaren iraganaren lekuko dira. Gaur egun, animazioko eta jabaria kudeatzeko taldeak eta artisten egoitza daude bertan.

HOPITAL MARIN

Erietxe zahar bat da, 1885ean eraikia La Cornicheko errepidean. Gaur egun, Parisko ospitale-sare nazionalan dago eta handicap neurologiko handia duten gaixoetan espezializatuta dago, eta horrela udalerraren Handiplage labelari ere laguntzen dio.

EUSKALDUNA

1865-1885 urteetan itsasertzeko pasealekuan eraikitako hotel kontinental zaharra, zaharberritua dago.

LA CROISIÈRE

Kasino eta jatetxe zaharra 1865-1885 urteetan itsasertzeko pasealekuan eraikia, eraberritua dago ere.

MAISON ROUGE

Edmond Durandeu arkitektoak eraiki zuen Citronniers kalean, 1911n.

MAISON MAURESQUE

1864an eraikia Kanetan, Pêcheurs kalean, Jules de Polignac kondearen enkarguz.

BAKHAR ETCHEA

Mauresque etxearen ondoan dago, eta 1903an eraberritu zuten. Pierre Loti idazle eta itsas komandantearen egoitza izan zen, eta bertan hil zen 1923an. Horregatik da ezaguna.

VILLA MARIE

Eraikin aipagarria da, XIX. mendearen amaieran eraikia, Eglise kalean.

LA GARE

1906an egin zuten geltokia, bainuetxearekin lotzeko, eta hainbat aldiz eraberritu dute. Historikoki, 1940an Franco eta Hitler han bildu zirelako da ezaguna.

INFORMAZIO GEHIAGO

www.bidasoaturismo.com

www.hendaye-tourisme.fr

www.irun.org

www.hondarribia.eus

www.hendaye.fr